

hegaz

Arturo USLAR PIETRI

**BASANAGUSI  
UNTXITXOA**



Basanagusi untxitxo



LIBURU HONEK EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA  
ETA TURISMO SAILAREN DIRU-LAGUNTZA JASO DAU.

© Arturo Uslar Pietri  
Argitaratzailea: Luis Vives, 1988  
Azala: José Antonio Velasco  
Lege gordailua: Z. 2315-88  
ISBN: 84-263-1508-9  
Imprimaketa: Edelvives  
Apartado 387  
50080 Zaragoza  
Printed in Spain

Debekatuta dago liburu hau edo bertako zatiren bat  
berrargitaratzea, copyright jabeen baimen idatzirik  
barik; aipamenak egin leitezke nongoak diran esanez  
gero.

*Arturo Uslar Pietri*

---

# **BASANAGUSI UNTXITXOA**

---

Marrazkiak:

*Viví Escrivá*

Itzulpena:

*Bibiñe Pujana*



Antxina-antxina, gaurko bai badira  
harrezkero gitxienez bi mila urte,  
herritxo baten abere pilo bat bizi zan:

Basanagusi untxitxoia  
Begi zorrotz tigrea  
Berbalapiko lorittoa  
Mokoluze oiloa  
Txakur nabarra  
eta beste asko eta asko.

hezay



Danetatik zorriztoena eta  
maltzurrena Basanagusi untxitxoan zan.

Beti ebilen barrabaskeriren bat  
pentsetan. Zertarako?

Ba lanik egin barik eta inoren  
kontura bapo-bapo bizitzeko.

Beti ez, baina bai sarritan lortzen  
eban pentsatutakoa.



Oso begizorrotza zan.

Belarri artez-artezak, hagin zorrotz-zorrotzak, ulea pardo-pardoa eta buztana... txikia baina dotorea, emakume askok euren kopetan ipinteko gura izateko modukoa.

Baserritxo bat be baeukan eta solo arlo txiki bat ere.

Soloan ez eukan ez artorik, ez babarik, ez... ezer.

Bakar-bakarrik hiru-lau porru eta azenaorio batzuk.



Goiz baten, eguzkia bere izpiekaz  
lepoan kili-kili egiten hasi jakonean,  
ohetik altxatu eta lanean hasi  
beharrean, herrira joan zan.

Bidean zehar begiak ere piztuta  
eroiazan hara heltzerakoan zer egingo  
eban pentsetan.



hezaz



Berbalapiko loritoaren ikastolako leihopera joan zan lehenengo.

Handik entzuten eutsan

Berbalapikori:

–Bost gehi bost, hamar.

–Hamar gehi hamar, hogeï.

Apur baten entzuten egon ondoren, atera joan eta «oles» egin behar eutsala pentsatu eban.

Pentsatu bakarrik ez, pentsatu eta egin.

–Dan, dan.

–Nor da?

–Neu, Basanagusi, zabaldu.

hefaz



–Egunon! Berbalapiko Jauna.  
Beharrizan gorriak eraginda nator  
zugana. «Zereko-zerean» daukadan  
osabea, hil zorian dago eta bera  
zaintzen joan behar dot.

–Ondo deritxat –erantzun eutsan  
Berbalapikok.

–Bai,... baina... nire baserria eta  
lurrak inork zaindu barik ikustea  
baino...gurago neuke... saldu be.  
Egia esan, ez dot diruagaitik egiten ez,  
maite dan gauzea ezin da saldu eta...  
baina zeuk erostearren...



–30 hamaseikotan emongo neuskizu; beno ez, zeu zarealako eta diru beharrizanik ez daukadalako, 15 hamaseikotan itziko dogu. Zer deritxazu?

–Beno, ez dakit, niri baserria atsegin jat, baina...

–Ez pentsatu gehiago, ekarzuz 15 hamaseikook eta baserria zeuretzat.

–Ia ba, lagun haundia zarelako eta premina honetatik ateratzeagaitik lagunduko deutsut. Hartu 15 txanponok.

–A, ahaztu baino lehen, nire baserria eta lurren jaube, hiru egun barru egingo zara. Ordurako artoa eta babea be batzeko moduan eukiko dozuz.

–Geu joango gara batzen—deadar egin eben Berbalapikoren ikasleak.

–Bai, hiru egun barru han izango gara —esan eban Berbalapikok.

–Ordurarte ba –erantzun eutsen Basanagusik irribarreka.



hefaz





Pozik be pozik urten eban  
Basanagusik Berbalapikoren eskolatik.  
Dirua paltrikeran gorde eta Moko-luze  
oiloa ikustera joan zan.

Moko-luzek ostatua eukan eta  
bertatik bidaiari asko igaroten zan,  
kanpoko atean beti egoan  
zaldi-gurdiren bat.

Bere lanetan, oilarrak eta  
txitetxoak ere laguntzen eutsien.

Goiz haretan, Moko-luze pozik  
egoan eta Basanagusi ikusi ebaneko,  
agurtzen hasi jakon:



–Egunon, Basanagusi! Zenbat denpora ikusi barik. Gaixorik egon zara ala? Kafetxo bat, hartuko dozu!

–Ez Moko-luze, ez naz gaixorik egon, lan askogaz ibili naz. Badakizu ba,... baserritxoa saltzea erabagi dot eta... dotore ipini behar.

–Eta, nori salduko deutzazu ba?

–Ba, hor dago kakoa, erosle bat agertu jat eta gainera 25 hamaseiko emoteko be prest dago, baina, egia esan, ez dakit zer egin.

–Nor da erosle hori?

–Nor dan? Ba azagari Jauna.


–Ai ene! Zer dinozu? Ezin dozu hori egin, hori gure hondamendia litzateke.

–Neu ere, horixe pentsetan egon naz –erantzun eutsan Basanagusik–. Hobe litzatekela zerorrek erostea, zeu izateagaitik 15 hamaseikotan salduko neuskizu.

–15 hamaseiko esan dozu? Eta, gaur bertan ordaindu behar?

–Bai, baldintza bi dagoz: Bata, gaur bertan ordaintzea eta bestea, hiru egun itxarotea, ordurako artoak batzeko moduan egongo dira.

–Ados, hartu 15 hamaseiko eta hiru egun barru, han izango gara!



Pozaren-pozez, saltoka eta  
brinkoka hasi ziran oilo eta txitatxoak:  
«Baserritxoa erosi dogu  
lan egiteko uda ta negu».

Baina Basanagusi ez egoan oraindik ere diruz asetuta. Bai zera! Bere begietan inoizko maltzurkeririk haundiena ikusten zan.

Tripazoro azeriaren etxera joan zan. Han aurkitu eban bere bulegoan, betaurreko ta guzti. Izan ere, Tripazoro azeria «lege-gizona» zan. Beno, lege-gizona bai baina ez gauzak konpontzeko, ez, guztiz alderantziz, dana trakestu egiten eban.

Basanagusik helduagaz batera, erdinegarrez, esan eutsan:

—Ai Tripazoro, bazenki ondo zelako nahastean sartu nazen?



besaz





–Ai Jaungoikoa! Berorrek, azeri jauna, lagundu ezean, galdua naz.

–Zer dinozu Basanagusi?

–Ai, Tripazoro Jauna, Moko-luze oiloari zorrak ezin ordaindu...

–Moko-luze oiloari? Ondo mereziduta daukaz –erantzun eutsan azeriak, barre eginaz.

–Bai, berori poztu egiten da baina ni ez, beti geroagorako itzi eta itzi egin dot bai... eta orain 30 hamaseiko eskatzen deustaz.

–Eskatutea libre da! Ez ordaindu eta... kitto!



–Bai zera! Hori be ezin dot egin, orain ez dau nahi dirua. Orain nire baserritxoaren jaube egin gure dau. Nik hareri emon baino gurago dot... zera be... hil.

–Ba, ez da «lelea» ez, Moko-luze, oraingo honetan ziur jokutzen dabil.

–Ai ene! Ez dakit zer egin! –inoan Basanagusik arpegi ituna jarrita.

–Egia esatea nahi badau nahiago neuke berorreri saltzea be, Azeri Jauna –esan eutsan azeriari.

–Ez dago txarto, baina... 15  
hamaseikotan e! –esan eutsan  
Tripazorok.

–Beno, ondo dago, 15  
hamaseikook ekar beiz oraintxe bertan  
eta hiru egun barru baserria  
berorrentzat. Hango jaubea berori dala  
ikusten dauanean, Moko-luze oiloa ez  
da ausartuko hurreratzen ere.

–Hori itxaroten dot! Ia, izenpetu  
eizuz sal-erosi egin dogula adierazten  
daben paper honeek –esan eutsan  
azeri jaunak.

hezaz



Urten eban Basanagusik  
Tripazororen bulegotik eta, etxera  
joateko asmorik ez eukan lez, Txakur  
Nabarraren Ertzaindegira joan zan.  
Izan ere, Txakur Nabarra ertzaina zan.

—Nondik zatoz «Kankailu» haundi  
hori? —itaundu eutsan txakurrak—.  
Ikusi zaitut «kontu-haundietan»  
azeriaren bulegoan. Barrabaskeriren  
bat gertatzen ibiliko ziniela, postura  
egingo neuke!



—Bai zera! —erantzun eutsan  
Basanagusik bildurtuaren aurpegia  
ipinita—. Badakizu zelako maltzurra  
dan azeria ez? Ba, neure baserritxo,  
derrigorrean berari saltzea nahi dau.  
Saltzen ez badeutsat salatu eta  
espetxera eroango nauala esan deust.  
Bakeak asko balio dau bai eta...


—Ez horixe! Salatu egingo zaituala  
eta bildurtuta berari saldu,... ez gero!  
—esan eutsan txakurrak.





–Bai, zuretzat, hori esatea erreza da, zugana ez dator eta, baina... beti bildurtuta egotea be ez da gauza ona gero!

–Errazoia daukazu, beti bildurtuta bizi beharra, ez da gauza ona ez.





–Baina nori saldu? Azeriaren ondoan bizi behar dauzala jakinik, nor ausartu erosten?

Txakurrak ondo ezagutzen eban baserritxoa eta, diru gehiago balio ebala ere, ondo ekian. Apur baten ixilik egon ondoren esan eutsan:

–Batek badaki... neuk neronek be...

–Jakin dot, jakin dot txakur jauna, zeuk, hain borondate onekoa izanik, lagunduko zeunstala. Beno, 15 hamaseikotan eta... hiru egun barru zeurea dozu.

Arin be arin urten eban  
Basanagusik txakurraren etxetik.  
Boltsea, diruz beterik eroian baina,  
etxe eder eta aberats batera joatea  
erabagi eban. Leiho haundiak, tximini  
dotoreak, ... dana zan aberastasuna  
bertan.

Ateetan ondo jantzitako gizon  
«aurpegi-ilunak» egozan.

«Begi-zorrotz» tigrearen jauregia  
zan. Begi-zorrotz tigreari danak  
bildurra eutsien. Izan ere inguru  
hareetako aberatsena eta agintariena  
zan.

–Ugazaba agurtzera nator –esan eutsen koipekeri haundiz ateetan egozan zaintzaileei.

–Itxaron –erantzun eutsien.

Luzaroan itxaroten egon ondoren, sartzeko agindu eutsien.

Begi-zorrotz tigrea, bere aulki ederrean jesarrita egoan, zerbitzariz inguratuta. Basanagusi ikusiaz batera, esan eutsan:

–Kontxo, aspaldiko! Lurrak iruntsi zaitualakoan egon naz, badakizu ba, hainbeste denpora hona etorri barik...

hezaz



Basanagusik, onaren aurpegia  
ipinten eutsan.

—Ez ba, ez naz asko etorri baina,  
ez neugaitik, berorreri denporea  
galduazo ez eitearren baino. Badakit,  
ondo be, ni lango epelak berorren  
lango haundikiei kalte egiteko bakarrik  
gareala. Berorrek orain be, ha zelako  
arto-arloak hartuko dauzan!

—Bai, egia da, baina hartzeko lan  
egin behar da, gero —esan eutsan  
untxiari tigre jaunak—. Nahiz eta  
ingurukoak gogorra nazela pentsatu  
—jarraitu eban— ni, langile amorratua  
naz, gogorkeria, gauzak konpontzeko  
bakarrik erabilten dot.



Erpak luzatu eta oihu egin eban;  
gero esan eutsan untxiari:

–Ia, zer dala ta etorri zara ba?

–Ba, hara, mesede bat eskatzera.

Txiroak ez daukagu ezer.

«Zereko-zerean» bizi dan anaiak, ume  
bat eukiko dau bai eta esan deust...

«Hara, nire hirugarren semearen  
aitabitxia, zintzoa, haundikia eta  
aberatsa izatea gura dot». Niri,  
esanagaz batera etorri jat burura  
berorrek betetzen dituala guzti horreek  
eta...

–Horregaitik etorri naz. Nik uste dot erantzun egokia emongo deustala.

Begi-zorrotz tigrea pozik egoan.

–Zelan ez! Esan zure anaiari neu izango nazela aitabitxia eta... pozik gainera! A, eta ahaztu barik eguna eta ordua esateko.

–Ez dakit barre ala negar, zer egin –esan eutsan Basanagusik poz aurpegia ipinita–, nire lobatxoa tigre jaunaren besoetakoa!



hegas





Orain arte oso ondo konpondu dogu dana, baina...

–Zer, zer jazoten da?

–Ba, berori aitabitxi izanez gero, bateo eder bat egin behar eta...

–Eta, zer?

–Ba, dirurik ez, diru hori lortzeagaitik prest nengoke baserritxoa 15 hamaseikotan saltzeko ere, baina, nori saldu? Pentsetan egon naz... nire baserritxoa polita da... berorrek ezagutzen dau ezta?

–15 hamaseiko ez da diru asko, baserriak gitxienez 30 balio ditu, baina... 15ean be, pozik salduko neuke. Nik, badakit Berbalapiko lorittoa eta Txakur-nabarra ere,

erosteko prest legokezala –inoan  
Basanagusik.

–Zer esan dozu? –esan eutsan  
Tigreak hasarre– txakurrari saldu?

–Ez estutu, hori pentsatu dot neuk  
ere, berorrek ez dauala gureko  
txakurrari saltzea.



Gainera, nik-neuk ere, neure baserritxoa, ondo zainduko dauanari bakarrik salduko deusat; ez barrabaskerietan eta kopletan dabilenari.

–Errazoa dozu Basanagusi, ikusten dot burua bere lekuan daukazula.

–Bai, eta hasi nazenez zer pentsatan nagoan ere esan egingo deusat. Berorreri saltzea huskeri bat deritxat, berorrek ez dau lurrik behar eta.



–Nik, berorreri oparitu egingo deusat eta gero, berorrek diru multzotxo bat emongo deust bateo polit eta ederra egiteko.

–Ez dago txarto pentsatuta, zurelako lagunak eukitearren edozer egiteko be prest, Basanagusi. Oraintxe bertan hartuko dozuz 15 hamaseiko.



Mozoloa zan tigrearen diruzaina  
eta hantxe bertan, danen aurrean,  
emon eutsazan 15 hamaseiko.

Dirua hartu ebanean jardetsi  
eutsan Basanagusik:

–Beste mesede bat eskatu daiket?



–Esan ba –esan eutsan tigreak.

–Ba, arto, baba eta gainetariko guztiak hiru egun barru batuko dodaz eta orduantxe etorriko da berori. Nire pozik haundiena hori izango da, dana batuta eta polito polito berorreri eskeintzea.

–Ondo deritxat, hiru egun barru han naz.

Basanagusi untxitxoak pozik be pozik urten eban tigrearen etxetik.

Boltsea diruz goraino beteta eukan, baina, diru guztiagaz herritik alde egin beharrean, baserritxorantz abiatu zan. Berbalapikoren etxetik igaroterakoan leihoan «oles» egin eta esan eutsan:

–Ez ahaztu gero! Hiru egun barru etorri.

Baserritxora heldu zanean janaria ipini eta bete-bete egin zan. Gero lotara joan zan.

«Han-hor-hemenka» emon ebazan hurrengo hiru egunak.



hegag





Hirugarren egunean, goizean-goiz agertu zan Berbalapiko loritoa.

–Egunon Berbalapiko! Dana prest dago; laster jaubetuko zara, baina lehenago mesedetxo bat egin behar deustazu.





–«Horren-bateko» jendea etorteko da eta, ez neuke gure neu konturatu barik harrapatzea, bestalde zeu harrapatzea be ez litzake gauza polita izango.

–Ta, zer egin orduan –esan eutsan Berbalapikok.

–Ba, zu zeu prest bazengoz arte horren gainera igon eta etorriala neuri esateko...

Ez gustora, baina, beste urtenbiderik ez egoala eta Berbalapikok arte gainera igon eban.

Laster entzun zan bere abotsa:

–Moko-luze oiloa dator!

Nekatuta eta izerditan etorren  
oiloa.

–Beti berandu ni be! Baina, tire  
mahai hau... neurea. Aulki hau...  
neurea. Harri hori ere... neurea.

Dantza algaran ebilen oiloa bere  
gauzak izendatzen, baina, gitxien uste  
ebanean, Berbalapikoren abotsa  
entzun eban.

–Tripazoro azeria dator!

–Zer, zer dino? –itaundu eutsan  
oiloak untxiari.



–Hemen harrapatzen banau, bizirik jango nau! Non ostendu neiteke?

–Ez estutu Moko-luze, sartu zaitetz otzara honetara.

Oiloa otzarara sartu baino ez, han agertu zan Tripazoro, guztiz hasarre.

–Basanagusi, kirten hori! Zer saldu deustazu? Hemen ez dago ez artorik, ez babarik, ez... perretxikorik. Itzuli eidazuz 15 hamaseikoak.

Basanagusik erantzun beharrean, begiari kinu egin eta, atzamarragaz otzarea erakusten eutsan.



Eta hurreratuaz belarrira esan  
eutsan:

—Otzara horretan oilo eder bat  
dago. Jaizu!

Azeriaren begiak «izpi-dariola» hasi  
ziran eta zart! saltoa egin eta...  
«oilo-koitadua»! berehala iruntsi eban.





–Txakur nabarra dator! –deadar egin eban Berbalapikok.

Azeriak, oiloaren hondarrak bertan-behera itzi eta esan eutsan Berbalapikori.

–Zer egin? Non ostendu?

–Zu, bertan gelditu ixil-ixilik, «axean» aginduko dot!

Itzelezko koipekeriz hartu eban Basanagusik txakurra.

–Pentsatu dot ba, ez zinela etorriko. Beitu, beitu hemengo edertasunak!

Azeriak bitartean, otzara barrutik ez eban ezer ikusten. Basanagusik txakurrari, belarrira esan eutsan:



–Baserria bakarrik ez, beste opari bat ere badaukat zuretzat. Begiratu zer dagoan otzara horretan.

Txakurrak, zulotik begiratuta ikusi ebanagaz, ezin sinisturik egoan.

–Azeria? –inoan.

–Bai, hartu eizu, zuretzat da  
–esan eutsan Basanagusik.

Otzarea zabaldu eta... «zirt-zart»  
emon eutsazan ukubilkadakaz zerraldo  
geratu zan azeria.

Jaten hasi zan, baina, une  
haretan Berbalapikok:

–Begi-zorrotz tigrea dator.

–Zer? Zer entzun dot? Zer egin  
dozu? Hau tranpa da –esan eban  
txakurrak.

Basanagusik ezer igaroko ez balitz  
bezala esan eutsan:

–Narrua osorik atara nahi  
badozu... ezkutatu zaitez, bestela...

Han etorren Begi-zorrotz  
«putze-dariola».



–Zer da hori? Oilo lumea? Nondik ekarri dozu?

–Ai zoritxarra! –esan eutsan Basanagusik—. Lurrean hilda dagoan azeri maltzur horrek hil dau.

–Eta hori, zer da? –txakurra erakutsiz.

Hori entzun ebanean, tximisteak lez urten eban txakurrak zokondotik. Baina... tigrea arina da eta... jazo behar zana jazo zan. Konturatu baino lehenago, gainera salto egin eta... alderik-aldera ebagi eta hil egin eban.

Tigrea, txakur gixajoa txiki-txiki egin ebanean, geldi-geldi eta erdi lotan geratu zan. Orduan, Basanagusik esan eutsan:

–Ez dago ondo, ez! Nik, berorrek oso txarto egin dauala esango neuke  
–esan eutsan tigreak.

–Txarto? Zergaitik? –erantzun eutsan tigreak.





hefaz





–Ba, orain, danak esango dabe,  
«15 hamaseikogaitik zelako astakeriak  
egitera heldu dan Begi-zorrotz»...

Oiloa, azeria, txakurra... danak hil.

Hau entzuterakoan oso hasarre  
jarri zan Begizorrotz.





–Eta nor ausartuko da nigaitik holakoak esaten? –zirautson Basanagusiri.

–Ba, danak, zure lagun-urkoetan hasi eta... azkenean laguntzat daukazuzanak ere. Ondo jokatu nahi badozu hobe dozu ixil-ixilik zeure jauregira joan eta ez agertu hemendik «Egundo Santa-Sekule».

–Eta, oraintxe bertan hiltzen bazaitut? –esan eutsan amorrutik bizirik Basanagusiri.

–Bai, hori be egiteko modukoa da baina, zer esango dau gero harek? –zuhaitzeko loritok erakutziz.


Gorantz begiratu eban tigreak eta loritok ikusi ebanean bere gainera salto egiten hasi zan. Berbalapikok hagazkada haundi bat egin eta alde egin eban. Tigreak atzetik jarraitu eutsan.

bezaz



Basanagusik itzelezko bakea igarri eban bere barruan. Zulo haundia egin eta bertan sartu ebazan hildako guztiak. Gero «kopautxo» bat jan eta lo gogorrean geratu zan.

Handik atzine, bertakoak dinoenez, Berbalapikok ez ei dauko geldi egoterik tigrea ikusi ezkerro, eta tigrea bera ere ixildu ezinik egoten ei da lorittoa ikusi ezkerro.



1. *Ilar*. CARLOS MURCIANO.
2. *Basanagusi untxitxo*. ARTURO USLAR PIETRI.
3. *Gegenioa*. FERNANDO ALONSO.
4. *Txinako katua*. JOSÉ LUIS OLAIZOLA.
5. *Izarra*. JESÚS OLÓRIZ.



Zelan poztu eta adoretu ume bat?

Basanagusi Untxitxoaren ipuina kontatzea da bide on bat. Untxiak, txikia izanda ere, tigrearri berari ere irabazi egingo deutso.

Arturo Uslar Pietri, Venezuelako elebarri idazle ezaguna dogu. Bere laterriko historia eta ipuinak dira bere idazlanen oinarri.

## **IRAKURRI EIDAZU**

**3 urtetik gorakoentzat**



**||. K. A.**

**Ibaizabal Argitaldaria**

**AA. Pasiotarrak**

**Euba - Bizkaia**